

Jakingarriak

Nolakoa da EGA?

EGA lortzeko hiru proba gainditu behar dira (EHAA: 2012, abenduak 10):

- 0 Atariko proba
- 1 Proba idatzia
- 2 Ahozko proba

Atariko proba. 85 item dituen test erako proba da. Gainditzeko langa: 60 erantzun zuzen. Ordu bete.

Proba idatzia. Bi ataletan, sei ariketa ditu. Lehen atalean: elkarrizketa testua, lexikoa eta irakurriaren ulermena, denak aukera anitzeko moldean: (a-b-c-d). Bigarren atalean: idazlan luzea, idazlan laburra eta esaldiak berridaztea.

Lehen atala egiteko, 65 minutu; bigarreneko, 110. Guztira, ia hiru orduko iraupena du.

Idazlanetan gutxienerako puntuazioa lortu behar da; gainerako ariketen puntuazioak, ordea, batera biltzen dira.

Ahozko proba. Proba idatzia gaindituz gero, azken proba honetan hiru ariketa egin behar dira: batetik, entzutezkoaren ulermena, test eran; bestetik, mintzamina: irakurgai baten azalpena eta bat-bateko elkarrizketa-saioa, 10 bat minutuan. Mintzamen-ariketak egiteko azterketariak binaka jarduten dute, hots, bikoteka.

Adina? Gutxienez 17 urte eduki behar dira edo 2013an bete.

Deialdi berean Nafarroan edo Iparraldean EGArako matrikulatuta egonez gero, ezingo da hemengoan parte hartu.

Matrikula non? Internet bidez. Hona helbidea: > www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/euskara

Zenbat azterketa urtean? Urtean bi bider egiten dira EGA azterketak. Pentsan iragartzen dira matrikula egiteko deialdiak. Urtarrilean eta uztailean argitaratzen dira.

Azterketak non? Matrikula egitean, azterketa-tokiak, egunak eta orduak zehazturik izaten dira. Hiriburuetan egiten dira.

Emaitzak jakiteko? Deialdirako finkatutako datetan, Hezkuntza Sailaren webgunean jartzen dira, nork bereak kontsultatzeko.

Notarik gordetzen da? Ez. Suspendituz gero, berriz hasi behar da prozesu osoa.

Erreklamaziorik egin daiteke? Bai. Kalifikazioak berrikusteko eska dezake azterketariak, baita proba idatziaren zuzenketa ikusteko ere, horretarako jarritako epean.

Azterketa egin duenari baino ez zaio erakusten, jarritako egunean eta orduan. Ahozko probaren emaitza berrikus dadila eskatzeko, beharrezkoa da saioa grabaturik egotea.

Aztertzailerak nor dira? Irakasle kualifikatuak dira EGArako aztertzailerak, Hezkuntza Sailak izendatuak.

Proba bakoitza nolakoa den jakiteko edota azterketa-ereduak eta prozedurak ikusteko, klikatu webgunean: > EGA materialak eta dokumentuak

Euskararen Gaitasun Agiria
EGA

C1

2013

EGA Eusko Jaurlaritza Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1982an sortutako euskara-agiria da. Lehenagoko hainbat erakunderen euskara-azterketen tradizioa jasotzen du, batez ere Euskaltzaindiaren D tituluarena.

EGA ALTE (*Association of Language Testers in Europe*) erakundeko kide osoa da. Azterketak prestatzen, antolatzen eta gauzatzen ALTEren jokabide-kode estandarrari jarraitzen dio EGAK. Europako Kontseiluaren Erreferentzia Markoaren barruan C1 maila dauka: A1, A2, B1, B2, C1, C2.

EGA egiaztagiria honako hau adierazten du: EGAdunak euskaraz badakiela behar hainbateko trebetasunez, ahoz eta idatziz, C1 mailan.

EGAK hainbat lanpostutarako (arlotan publikoan zein pribatuan) eskatzen den euskara-mailaren egiaztagiri-balioa du.

EGA ez da ezein jakintza-arlo berezitarako agiria; alegia, ez da bereziki irakaskuntzarako, kazetaritzarako edo itzulpengetzarako agiria.

ATARIKO PROBA

Sarrerako proba da. 85 item ditu, hizkuntzaren hainbat alderdi neurtzeko.

ATARIKO PROBA	
Ahozko hizkuntzan oinarrituak	30
Lexikozko ariketak	10
Morfosintaxia (dekl., aditza, egit.)	24
Euskara batuaren arauak jakitea	5
Hizkuntza idatziaren ulermena	12
Beste batzuk (datak, orduak...)	4

Gaiztitzeko langa: 60 erantzun zuzen. Ordubeteko iraupena du eta irakurgailu optikoz zuzentzen da.

PROBA IDATZIA

Bi atal ditu eta sei ariketa.

PROBA IDATZIA				
Atala	Ariketak	Punt.	Gai	
1	Elkarrizketa-testua	5	–	65'
	Lexikoa	5	–	
	Irakurmena	10	–	
2	Idazlan luzea	10	10	110'
	Idazlan laburra	10		
	Esaldiak berridaztea	10	–	
Guztira		50	27	175'

Gutxieneko puntuaziorik ez duten ariketetan lorturiko notak batera biltzen dira.

Azken kalifikazioa *Gai* edo *Ez gai* da.

EGako aztertzailleek jardunbide baten arabera zuzentzen dituzte idazlanak. Anonimotasuna babestuta dute idazlan guztiek, kode-sistema baten bitartez. Bina aztertzailleek zuzentzen eta kalifikatzen dituzte, modu independentean, eta batez bestekoak ateratzen dira.

AHOZKO PROBA

Bi atal ditu: entzutezkoaren ulermena eta mintzamena.

Lehen atala egiteko grabazio-zati batzuk entzuten dira, eta horiei buruzko 20 item edo galdera erantzun behar dira, a-b-c moldean.


Bigarren atalean, azterketariak binaka aritzen dira, bi ariketa hauek egiteko:

- 1 Irakurgai baten ahozko azalpena
- 2 Bat-bateko elkarrizketa-saioa

Azalpena prestatzeko, 20 minutuko denbora-tartea dago.

Bi azterketarien 5 minutuko azalpenaren ondoren, elkarrizketa-saioa egiten da.

Epaimahaia bi aztertzailleek osatzen dute.

AHOZKO PROBA				
Atala	Ariketak	Punt.	Gai	
1	Entzutezkoaren ulermena	10	–	35'
2	Ahozko azalpena	20	20	40'
	Elkarrizketa	20		
Guztira		50	25	

Ahozko probako lau gaitasunak neurtzeko (linguistikoa, diskurtsiboa, funtzionala eta soziolinguistikoa), EGAK gidari ditu Europako Erreferentzia Marko Bateratuko **C1** mailari dagozkion parametroak.

- ◆ Horra hor azterketa-eredu batzuk. EGaren webgunean gehiago dituzu:



Matrikula-epeak

- Lehen deialdia: urtarrilak 7-21
- Bigarren deialdia: uztailak 1-15
- Prentsan iragartzen dira. Webgunean ere jarrita daude.

Matrikula egiteko

Internet bidez:
www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/euskara.

Azterketarako oharrik

- Azterketarako dokumentazioa: nortasun-agiria, gidabaimena, pasaporte edo egoitza-baimena. Dokumentaziorik gabe ezin da azterketa egin. Fotokopiek ez dute balio.
- Garaiz egon behar da azterketa-lekuan.
- Hiru probetarako arkatza, borragoma eta boligrafoa eraman behar dira. Komeni da erlojua ere aldean izatea, telefonoa piztuta edukitzea debekatuta baitago.

Gehiago jakiteko

- Euskara batua: Euskaltzaindiaren arauak biltzen dituzten liburuak edo webgunea.
- EGaren baliokideak:
 - 297/2010 Dekretua (EHAA, 2010-11-15)
 - 263/1998 Dekretua (EHAA, 1998-10-23)
- 2012ko azaroaren 14ko Agindua, 2013ko EGaren azterketa-eredua finkatzen duena. (EHAA, 2012-12-10)